ttipi-ttapa

1990eko Abenduak 20 | 52. zenbakia | dohain banatzen da



Mendi nekazaritza: etorkizun larria

URTEBERRI ON!!

FRANTXISKAREN SASKIA

LEHIAKETA

Hamabostaldi honetako sariak

ARROPA ETA OPARI DENDA

Merkaderes 9, Tfnoa: 45 15 40 - **DONEZTEBE**

Panpina bat

JATETXEA

LA VILLA

Tfnoa: 63 72 90 - **IGANTZI**

Afari bat bi lagunentzat

San Migel Auzoa - **DONEZTEBE**

Galtza pare bat

Laia

MUSIKA DENDA

San Esteban 37, Tfnoa: 63 10 59 **BERA**

Walk - man bat

Portada moztu nahi ez baduzu, idatz ezazu erantzuna eta zure datuak paper batean eta abenduaren 22a baino lehen guri bueltatu. Animo! Zuk ere eskura dezakezu sari bat! Laugarren hamabostaldiko sariak honelaxe banatu ziren:
Tximeletak emandako **jertsea**, Doneztebeko **Irune Juankorena**ri; **La Villa Jatetxea**k emandako **afariak**, Arantzako **M. Dolores Mutuberria**ri; **Ezkalo**k emandako **aseguroa**, Huitziko **Bakartxo Orejari** eta **Laia musika denda**k emandako **Compact disk**a Lesakako **Maider Susperregi**ri. Kartak, **Tximeleta**ko **Ana Mari Etxeberria**k atera zituen. **Zorionak!**

Galdera: Zenbat urtez izan dira Euskalerriko txapeldun trinketean Oskar Txoperena eta bere anaia?

Erantzuna:.....

Izen-deiturak:.....

Helbidea:..... **Adina:**..... **Tfnoa:**.....

Gusto baduzu, erantzun ezazu galdera eta guri bueltatu lehenbailehen: ***ttipi-ttapa***, *Frantxiskaren Saskia*, Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA

ATARIA

non - zer

4 **AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.

7 **HONTAZ ETA HARTAZ**

8 **IRAKURLEAK MINTZO**

9/25 **HERRIZ HERRI**

Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...

26 **ERREPORTAIA:** "Mendi nekazaritzaren etorkizun larria"

Aitor Arozena

28 **ELKARRIZKETA:** "Oskar Txoperena" Munduko Pilota Txapelketan brontzezko domina lortu zuen pilotaria

Patxi Larretxea

30 **KIROLAK:**

Mattari eta Antton

32 **OSASUNA:** "Bihotzeko infartoaren zergatiak"

Benedicto Agirre

33 **ARO BERRIAREN ATARIAN:**

Fermin Altzuguren

34 **MERKATU TTIKIA**

35 **DENBORAPASA**

Enbido

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 3.700 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txoperena, P. Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Mañone, Antton, Patxi Petrirena, Olain Elkartea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldua Argazkiak, Mattari, Fermin Altzuguren, OMT eta Enbido-k. **Argitaratzailea:** ***ttipi-ttapa***. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea eta Nafarroako Gobernua. **Inprimategia:** Jomisa (Irun)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa 088
OSASUN ZENTRUAK
Elizondo ..... 452367 / 580235
Doneztebe 450300
Lesaka ..... 637428 / 637336
Leitza ..... 510248 / 510573
KONTSULTAK
Arizkun 587039
Gartzain 580451
Oronotz-Mugaire 592024
Ituren 450183
Sunbilla 450283
Goizueta 514067
Igantzi 637755
Arantza 634131
Bera ..... 630929 / 630036
Etxalar 635105
Urdazubi 599130
ANBULATORIOAK
Irun 630264/621106
OSPITALEAK
Irungo ospitalea 614444
Nafarroako ospitalea 102100
SSko urgentzi zerbitzua 246750
Virgen del Camino erresidentzia 262700
Gurutze Gorria 226404
ANBULANTZIAK
Oitz 450242/450342
DYA
Lesaka (larrialdiak) ..... (943) 464622
Elizondo (larrialdiak) 171717
FUNERARIA
Lesaka 637404
SUHILTZAILEAK
Oronotz-Mugaire 592044
GARRAIOAK
Bidasotarra 630279
Baztanesa 580129
Leitzaran 515018
HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:
Elizondo 580730
Lesaka 637154
Bera 630104
ABERIAK:
Iberduero 450335/450336

Deialdiak

Lesakan, urtarrilaren 4ean, Herriko Etxean arratsaldeko 5etan Lesakako Euskara Batzordearen bilera.

Igantzin, urtarrilaren 7an, arratsaldeko 7etan, Igantziko Euskara Batzordearen bilera.

Beran, urtarrilaren 8an, arratsaldeko 7etan Herriko Etxean, Berako Euskara Batzordearen bilera.

Arantzan, urtarrilaren 10ean, arratsaldeko 7etan, Arantzako Euskara Batzordearen bilera.

Botikak

•Abenduaren 22-23an, Bera, Sunbilla eta F. Lezaun (Elizondo.

•Abenduaren 24-25ean, Lesaka, Sunbilla eta F. Iturralde (Elizondo).

•Abenduaren 29-30ean, Arantza, Doneztebe eta F. Lezaun (Elizondo).

•Abenduak 31-1ean, Etxalar eta F. Iturralde (Elizondo).

Dantzaldiak

Lesakan:

• **Abenduaren 23an,** Plazan, 7,30etatik aurrera EGAN taldearekin dantzaldia.

Filmeak

Elizondon:

• **Abenduaren 25ean,** El Pilar-en, arratseko 7,30etan, LAS CARTAS DE ALOU. • **Urtarrilaren 1ean,** toki eta ordu berean, NEGOCIOS DE FAMILIA. • **Urtarrilaren 6an,** OVEJAS NEGRAS.

Bota bertsoa



Jose Mari Fagoaga
Gaia: Loteria
Neurria: Zortziko haundia

Urte osoa pasatugatik
estua eta larria
zarra badoa bukatzen eta
etorriko da berria
urte amaieran jokatzen den
ohitura da loteria
hogeitabia izan liteke
egun bat zoragarria

Abenduaren hogeitabia
zai daude asko ta asko
beste batzuk ajolikan ez
jokatu ez dutelako
esperantza ere badaukagu
ote zaigun tokatuko
urte azkena ongi bukatu
berria ongi hasteko

AGENDA

Antzerkiak

◗ **Goizuetan:**

• **Abenduaren 29an,** Umore Ona elkartean, 6etan, "Fegoli" taldeko Iolanda Arrieta ipuin kontalaria (haurrentzat).

7,30etan, monologoa, "Gela txikiko soineko beltz iluna".

• **Hilbeltzak 5,** zineman Lam eta Lorea antzerkia panpinekin, Leitzaldeko Euskara Zerbitzuak antolatuta.

Bertsoak

◗ **Elizondon:**

• **Abenduaren 22ean,** Arizkunenean, arratsaldeko 5etan, *Lazkaotxiki-Zeberio-Arozena-Elizagoien-Amorena* eta *Fagoaga*.

Kantaldiak

◗ **Leitzan:**

• **Abenduaren 22ean,** 10,30etan MIKEL LABOA.

Gastronomia

AZA, ODOLKI ETA TXORIZO PASTELA, babarrun saltsarekin

Osagaiak: 500 gr. aza, odolkia, txorizo egosia, 6 arraultze, esnegaina litro 1/4a, aza salda litro 1/4a, gatza, piperbeltza eta bi babarrun burduntzali pure egiteko.

Aza, 15 minutu egosten jarri eta gero xukatu. Puding molde bat gurinez eta ogi



Javier eta Alex Mujikak emana. BASAKABIJatetxea, LEITZA.

rallatuaz igurtzi. Aparte, arraultzak, esnegaina, salda, gatza eta piperbeltzarekin batitu. Moldean, aza kapa bat jarri, arestiko nahasketarekin tapatu eta luzeran txorizoa eta odolkia jarri. Beste aza kapa jarri eta, berriz, lehengo nahasketarekin tapatu. Labean baño-marian 180 gradutara eduki ordu batez. Hozten utzi eta plater batean zm. Iodiko bi xerra babarrun saldarekin zerbitzatu piperminez apaindua.

Baserriko feria

◗ **ZERRIKIA**

•**Zerrikumea** (20 kilokoa): 4.400pzta. **Zerri gizena** (95-100): 142 pzta./kilo bizirik. **Urdamak**: 55-75 pzta./kilo bizirik.

◗ **BEHIKIA**

•**Aretze gizenak**:

Idixkoak: Pzta/kg. Kanal

Extra.....550-560
1.koa.....530
2.koa.....480-500

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal

Extra.....560-570
1.koa.....530-580
2.koa.....500-510

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

Baztango aretzea: 630-690 pzta/kg. Kanal.

•**Behi zaharrak:**

Behi nabar gizena: 330Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 370-400 Pzta / Kg. Kanal.

•**Aretze ttikiak** (15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 20.000 eta Idixkoak 25.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 30.000 eta idixkoak 35-37.000 Pzta.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa

JOHN DEERE
S. Somner
Nekazal Tresneria
Salmenta eta konponketa tailerra
Ergoien auzoa, Tf.: (943) 490619 - OIARTZUN
BERAn, Agerra Industrialdean

MALDAERREKA S.A.
FUNERARIA ZERBITZUAK
Bittiria kalea -Tfnoa: 637404- LESAKA

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

LEGARRA
PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK
Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

AGENDA

Irratia

Xorroxin Irratia

Baztan-Malerrekarako eguneroko programazioa

- 8,00tik 12etara: Musika.
- 12etan: Egunon.
- 12,05: Etxeko lanak.
- 12,15: Konkurtso kulturala.
- 12,30: Egunkariak begiratuz.
- 12,45: Nafarroan zehar
- 13,00: Herriz herri.
- 13,25: Oharrak, etab.
- 13,30: Gaur (Egunero gai desberdin bat).

Ondoren, konkurtsoa, dedikatoriak eta musika arratsalde osoan zehar.

Zinema

Bertolucci berriro: **"El Cielo Protector"**

Bertolucciren filmak beti notizi interesgarriak izan dira, onak ez ezik polemika sorterazten dutelako gehienak; nor ez da oroitzen "El último tango", "La Luna", "Conformista", "Novecento" edo "El Ultimo Emperador" filmetaz.

Berak erraten duenez ezin dezake Europa zahartu honetan filmarik egin; oraingo hau Afrikako Marruecos, Argelia eta Nigerian egina dago.

Tangerren aspaldidan bizi den Paul Bowles idazle iparamerikarraren "El cielo protector" liburuan oinarrituta dago filma hau.

Senar emazte batzuren abentura fisikoa eta beuren bizi esistentziala konpontzeko bidean jartzea da filma interesgarri honen helburua.

Datozen besta hoietan ikus dezakegun filma interesgarriena eta datorren urteko "Oscar" eta bertze sariak emateko orduan gogoan edukiko dutena.

GOLEM - IRUÑEA

Bideo berriak

◗ **"Romero"**, USA, 1989, John Duigan

Ertamerikako Salvador herrialde ttiki hortan aspalditik irauten duen guda zibila azaltzen digu bideo honek, eta bertako katedralean meza ematen ari zela Romero obispoaren erahilketa ejerzitoaren esku. Erdi dokumental eta erdi politikoa den filma.

◗ **"Black Rain"**, USA, 1989, Ridley Scott

Zientzi fikzio urbanoak baditu nahiko jarraitzaile. "Blade Runner"ek garai bat markatu zuen eta orain "Black Rain" egin digu Ridley Scott-ek.

Japoneko mafiak Yakura izena duenez, Osakara joaten da iparamerikar polizi bat Yakura desegiteko asmoarekin. Azkenean lortuko du (nola ez) nahiko kostata gero.

BIDEO CLUB BERA
BIDEO BELAI - LESAKA

AFRO
REGGAE
ZOUK

ZAGIT
Taberna. JARAUTA, 98.
IRUÑEA. Tfnoa: 22 14 40

ETXEGARAI
BIDEO KLUBA
Telebista eta Bideoak
Antena kolektiboak eta banakakoak
Konponketa tailerra
Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

ZIZKA OSTATUA
Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA

HERRIKO OSTATUA
Tfnoa.: 59 43 25
ITUREN

Euskarak badu aurrekonturik

Bortzirietako Euskara Makomunitatea eta Malerreka eta Leitza-Goizuetako Euskara Zerbitzuetan

Jon Gorrotxategi (Bortziriak), Ines Gereka (Malerreka), Antonio Chivite (Leitza-Goizueta)ko Euskara Zerbitzuetako teknikariak

Kirolak edo Musikak jada aspaldixkotik zeukaten modu berean, azkenean, euskarak ere lortu du zenbait herritan aparteko partida bat ezartzea Udal-aurrekontuetan.

Hala ere, egoera ez da berdina herri guzietan. Bortzietan, adibidez, orain dela urte bat Euskararen Arazoetarako Mankomunitatea osatu zen juridikoki eta ofizialki.

Inguru honetako bertze Udalerritan, ordea, ez dago horrelakorik oraindik. Izan ere, Malerreka eta Leitza-Goizuetako Euskara Zerbitzuek ez dute zoritxarrez Bortzirietako Euskara Zerbitzuak duen Udal laguntzarik; eta jakina, horrek eragozpen ugari sortzen dizkie alor honetan minimoki funtzionatzeko edota plangintza serio bat egiterakoan. Bertzalde, Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubin ez dute sikiera Euskara Zerbitzurik ere, nahiz eta, Nafarroako Gobernua prest egon euskara-koordinatzailearen kontrataziorako behar den dirulaguntza emateko, Udalek eskatuko baliote.

AURREKONTUAK.– Datorren urteko plangintzari dagokionez, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen aurrekontua 27.425.391-koa da; Malerrekako Euskara Zerbitzuarena 9.675.262-koa eta azkenik Leitza-Goizuetako Euskara Zerbitzuarena 10.000.000koa.

Bortzirietan, zaborra biltzeko sistema berria

Urtarrilaren 1etik aintzinera martxan

Sortu berri den Bortzirietako Hiri-hondakinen Mankomunitatetik gaztigatu digutenez, 1991.eko urtarrilaren 1etik aintzinera, zabor bilketa sistema berria jarriko da martxan Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakan.

Zerbitzuari dagokionez, sumatu ahal izanen den aldaketarik nabariena, karrika eta baserrietan zaborrak biltzeko jarriko diren bi zabor-ontzi ezberdinak osatuko dute. Batean, zaborrez betetako boltsak jasoko dira, eta bertzean, beira edo bidriozko hondakinak (boteilak,...).

Bilketari dagokionez, Bera eta Lesakan, astean 5 egunez bilduko da eta bertze hiru herritan, astean 3 aldiz. Baserrietako bilketa egunak, ordea, ezberdinak izanen dira. Tamaina haundiko zaborrak, berriz, hilabeteko lehendabiziko asteazkenetan bilduko dira.

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

IRUBIDE
ostatua
erretegia
Tfnoa: 637127 LESAKA

TXOKO
ERRETEGIA
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN
Tfnoa.: 45 04 91

Fco. Martin Aiestaran
BURDIN-LAN ARTISTIKOA
450235 - ELGORRIAGA

ttipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA
Tfnoa: 63 11 88

IRAKURLEAK MINTZO

KAIXO LAGUNOK

Hemen gaituzue Doneztebeko barnetegian JO TA KE Euskara ikasten, egunero euskaraz ahalegintzen, gure ohizko hizkuntza baztertzen (española, frantsesa), eta gurea izan beharko zuen hizkuntza lantzen. Euskaraz bizitzea hautatu dugu eta ulergaitza egiten zaigu zuek euskaldunak izan arren erderara jotzea, are gehiago esango dizuegu, euskara baztertzea. Ez dakigu ohartuko ote zareten euskalduna izatea euskaraz bizitzea dela... horrexegatik ba euskaldunak ote zarete? Guk argi daukagu euskaldunak izatea gustatuko litzaigukela. Zuen aukera bagenu! Zer demontregatik egiten duzue erderaz!?

Bestalde, zuekin egoteko dugun aukera hau aprobetxatzen dugu behin baten gertatu zitzaiguna salatzeko.

Egun batean atera ginen herri batetarat ariketa bat egiteko asmoz, hots, bertako jendeekin hitz egitera, zuzendu ginen denda batetara eta hango pertsonarekin euskeraz hitzegiten hasi ginelarik antzarrak perratzera bidali gintuzten, euskaldunak ez zirela, nafartarrak baizik esanez (gizarajoak problemak zituen erderaz egiteko, hizkuntza batean aritzeko hizkuntza hori ezagutu behar bait da).

Dena ez da hain iluna, konkistaturik gabe dauden uharte hauek konkistatuko ditugu!!!

Doneztebeko Barnetegiko Indiano batzuk HUUUGGG!!!

J. M. ANDUEZA
Elektrizitate instalazioak
Bidasoa 77, Tfnoa: 63 08 54
BERA

ttipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA
Tfnoa: 63 11 88

ZALAIN JATETXEA
Eguneko menua eta karta
Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06
BERA

EKAITZA OSTATUA
Altzate - **BERA**

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - **BERA**

Canon
BIDASOAn
Santiago 7
IRUN
✓ Fotokopiadorak
✓ Fax-ak
✓ Idazmakinak
✓ Kalkulamakinak
Tfnoa.: (943) 63 18 18
Fax: (943) 61 15 15

EUSKALDUNA
JATETXEA
Tfnoa.: 63 03 92
BERA

Espainiar Ejerzitoari lankidetza ukatu egin dio Udalbatzak



Berako hiru intsumisoek, Udalbatzaren laguntza jasoko dute

Teilatu osoa berritu zaio Berako Elizari

Goiko

ROMAN HARRIBILAGA

Lehen puntuari buruzko Alkatearen abstentzioarekin eta plenoan zeuden 3 Herrialde, 3 EA eta 3 HBko udalkideen ahobatekotasunez, "*espainiar ejerzitoari etorkizunean zerrendatze, tailu, zozketa, eta abarri dagozkion kontuetan Udalaren lankidetza ukatu, soldadutza egin nahi ez duten herriko gazteei aholkua eta informazioa emateko bulego bat ireki eta gure herrian hiru intsumiso badagoenez gero, beroriei Udalaren laguntza eman, bere errua hartzearekin batera*" erabaki du Udalbatzak. Modu berean, intsumisio gaiaz ariko diren hitzaldia eta antzerkia eskeini asmoz erabiliko da Kultura alorrean gehigarri geratu diren 200.000 pezeta.

Akordioak Berako HB udal taldearen izenean Martxel Telletxeak aurkeztutako mozioari erantzun dio. Era berean, mozioaren edukinaren bigarren puntua garatuz, Udalak Alkatearen sinadurarekin eskutitz bana igorri die zozketatuei, kontzientzia eragozpen Legea gaitzetsiz, bertzeak bertze, espainiar ejerzitoan soldadutza egitearen aurkako jarrera 1989ko abenduaren 11ko plenoan hartu zuela oroiteraziz, nahiz eta ondoren Nafarroako Justizia Entzutegiaren erabakia bete beharrez akordioaren etendura "*lege aginduz*" onartu aurtengo urtarrilaren 18ko bilkuran.

Hala ere, "*zozketa egin arren, informatzeko, orain da une egokia*" erraten die gazteei Udalak, hitzaldia eskeiniko den eguna adieraziz.

Parrokiako berriztaketa lanak

Teilatu berriaren ezarpenarekin, bere azkenekotan sartu dira maiatzaren bukaeran hasitako Parrokiaren berriztaketa lanak.

Teilatu berria paratu, ganga edo bobedak eusten zituzten zurezko laxkak burdinazkoez, eta hauek eraikinaren orma guztietan barrena beren aldetik eusten zituzten uztaiak ormigoiezkoez aldatu egin da orain arte. Orain, koru gainean kokaturik dagoen ganga edo bobeda berriztatzen ari dira, zur eta igeltsuz egina zegoen sabaian adreilua jarriz. Egitasmoaren arabera elizaren atzekaldean dagoen hilerri tikiko harriak kanpandorreko eskaileren ondoko lorategian jarriko dira.

Baina lanak luzatu eginen dira. Korua eusten duten zurruinak edo zurak termitek zulaturik omen daude eta burdinezkoez ordezkatuko dira, horretarako 25 milioiko aurrekontua gehitu behar bada ere.

Erretore berria

Bestalde, abenduaren 1etik Luis Aizpuru Latasa apez sunbildarra da Berako erretore berria. Aurrekoa, Jose Maria Apeztegia baztandarra, Erratzu eta Iruritа herrietako erretore izendatuz.

LESAKA

Zuzendari berria Laminaciones-en



Jesus Imaz, orain arte Zalaingo tubo sailaren buru zena izanen da Laminaciones - ek Lesakan, Legasan eta Zalainen dituen lantegien zuzendari berria, Antolin jaunak orain arteko zuzendaria zen Carlos Sancho bere kargutik egotzi ondoren.

Enpresatik jakinarazi dutenez, zenbait subproduktuen tratamenduaren gestioan egindako hutsengandik bidali dute Sancho jauna eta lehen bait lehen adierazi dute kaleratze honek ez duela zerikusirik azken hilabetetan egindako beste zuzendaritza karguen botatzearekin. Badirudi, Igantziko Bentetako ATM enpresarekin zeuden harremanak ere izan dutela zer ikusirik kanporaketa honetan. Hala ere, kaleratzen dituzten ebentualak baino hobekixiago gelditu omen da. Posible ote da ?

Landazelaiak - ek aldizkaria argitaratu

Landazelaiak taldeak bere aldizkariaren O. zenbakia argitaratu du, bertan, orain arte burutu dituzten ekintza eta eskariak, eta Udaletik jaso dituzten erantzunen berri emanez. Honez gain, Europako Elkartean sartzeak ekarriko dizkigun kalteetaz ere luze dihardute, horrek ere Laminaciones - ek egin nahi duen anpliazioarekin zerikusirik badulakoan.

Aldizkariaren portada

"San Fermin" - ek afariarekin agurtuko urtea

"San Fermin" Jubilatu Elkarteak, Kasino ostatuen eginen den afari batekin eta ondoren "Beti Jai" taldearen eskutik ospatuko den dantzaldiarekin eta sari banatzearekin bukatutzat emanen dituzte aurtengo ekintzak. Hala ere, urte berriari umorez ongi etorria emateko dantzaldia izanen dute frontoian Urte zahar gauean 12etatik aintzinera.

Zorionak jubilatuei eta gainerako guztiei !!!

ttipi-flash

• Otxoteko - Taintak B mailan eta Salbador Iak eta Bittirik A mailan irabazi zuten herriko paleta larruzko txapelketa.

• Azienda eta zakurren katastroa berritzeko, hauen jabeak Ilbeltzaren 31a baino lehen agertu behar dira Herriko Etxera.

AITOR AROZENA

ZALAIN JATETXEA
URTE ZAHARREKO AFARIA
Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06
BERA
Menuak aukeran

LORA DENDA
TXIRULA
Bittiria LESAKA
GABONETARAKO BEHAR DITUZUN OPARIAK
Jostailu didaktikoak, arropak, keramika, diskak, kasetak, bitxikeriak, abanikoak,...
Bittiria karrika, Tfnoa: 63 74 94 - LESAKA

Okindegiaren antolamenduan aldaketa

PELLO APEZETXEA

Mende honen lehen urtetan sortutako Etxalarko Okindegiaren jabetza berezia da. Sozietate Anonimoa izanik sozio haundiena Herria baita, bertze sozio guztiak,129, herritarrak direlarik. Herriak 358 akzio ditu, bertze sozio guztien artean 170 dituztela, hagitz banatuak.

Abenduaren 2an batzarra egina dute, 60 kide bertaratuz, Europako Ekonomi Elkartearen lege berria dela eta. Honen arabera, 1992.eko eriruaren (ekaina) 30erako sozietate anonimo guztiek hamar milioitako kapital soziala beharko dute eduki. Orain Okindegiak duen kapitala 1.056.000takoa denez gero, hemendik urte t'erdirako 10 milioitarako falta dena nola bildu: hona batzarraren gaia. Aurten eta hurrengoan zenbateko irabazia izaten den ikusi ondotik, batzar bilera berria burutuko da 1992.eko lehen hilabeteetako batean. Dena den, badirudi aintzinera segitzeko asmoak agertu dituztela sozio edo kideek.

Azkeneko batzarrera 60 sozio bildu ziren

Ur hornidura eta saneamendu tasaren zenbait aldaketa

Ordainketa paperak erraztu asmoz, heldu den urte hasieratik ur zenbakari edo kontadore saririk ez da bertan sartuko, saneamendua berriz gastatzen den ur metro kubikoko zortzi pezeta kobratuko delarik, BEZ edo IVA barne.

Uso ehizaldi kaxkarra

Azken urte hauen antzera, aurtengoa ere ez da ona izan usazaleentzat, sareetan harrapatutako uso kopurua 82 dozenatatik ez baita pasatu. Usategietako igandearen ondoko bi asteetan eguraldi lainotsu eta euritsuak izan du zerikusirik, noski. Landaburuko Bordako Gerardo horretan dago, egun horiek izaten omen dira, izan ere, uso gehien pasatzen direnak eta harrapatzeko aukera onena eskaintzen dutenak. Dena den, ehizaren gutxitzea gero eta nabariagoa da. Saran 20 dozena bertzerik ez omen dute sareratu.

BEKO ERROTA
Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

XATURETXEA
FONDA
Tfnoa.: 63 70 27
LESAKA

ATERPE
jatetxea
URTE ZAHARREKO AFARIA
Afalondoko giroa alaitzeko,
Gregorio Mitxelena izanen dugu bere akordeoiarekin
Hamabietan, mahatsak eta ondotik... saski bat zozketatuko da
tfnoa: 63 41 79
ARANTZA

BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

1991.eko urtarrilaren 1etik aintzinera, zabor bilketa sistema berria martxan

1991.eko urtarrilaren 1etik aintzinera, Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakako zaborrak biltzeko sistema berria jarriko da martxan.

Hortarako, **karrika eta baserrietan** bi zabor-ontzi ezberdin paratuko dira: bata, **zaborraz** betetako boltsak botatzeko eta bertzea, **beira edo bidriozko** hondakinak (boteilak,...) biltzeko.

Gainera, hilabetero, lehendabiziko asteazkenetan, tamaina haundiko gauzak bilduko dira, hau da: moble zahar, koltxoi eta abar. Hauexek ere, zabor ontzien ondoan utzi beharko dira.

Hona hemen, bilketa egunak herriz-herri:

- **Arantza**: *Astearte, ortzegun eta larunbatetan.*
- **Bera:** *Egunero, ortzegun eta larunbatetan ezik.*
- **Etxalar:** *Astearte, ortzegun eta larunbatetan.*
- **Igantzi:** *Astearte, ortzegun eta larunbatetan.*
- **Lesaka:** *Egunero, ortzegun eta larunbatetan ezik.*

Baserri eta auzoetako bilketa egunak ezberdinak izanen dira.

Zure laguntzari esker, herritar eta Udalen lanak elkartuz, eskualdea garbiago eta atseginagoa bihurtzea lortuko dugu.

Bortzirietan, 1990eko abendua

Mankomunitatearen Presidentea

IGANTZI

Garbitasun brigada berriak

OSKAR TXOPERENA

Duela hilabete pare batetik aintzinera zenbait gaztetxok garbitasun talde gisako batzuk antolatu dituzte. Talde hauek gutxi gora behera hamartik hamahiru urtetara dituzten gaztetxoek osatzen dituzte. Zenbait larunbatetan inork deus erran gabe elkartzen dira eta herriko karrika eta eskin guztiak garbitzen aritzen dira.

Luzaroan iraun dezatela horrelako iniziatibak, adin horretako jendearengandik datozenean, batez ere.

Aizalegiko biraguneko pareta

Denok dakizuen bezala Aizalegiko biragunean pareta bat altxatzen ari dira, bertan egindako desmonteari kontzeko. Hasiera

batean lana desmontea egin zuen enpresa berari ematea pentsatu zuen Udalak baina hagitz aurrekontu altua aurkeztu zuenez herriko jendearekin moldatzea pentsatu zen. Horregatik ari dira lanean "INEM"-en laguntzarekin kontratatutako bi pertsonak eta paretak egiten ohitura duen pertsona bat.

Azken denboraldi honetan ezin izan dute lan handiegirik egin eguraldi txarrarengatik.

Eskola - Zar moldatzeko proiektua

Eskola - Zar etxearen egoera ikusirik aurreproiektu bat presentatu du Udalak "Principe de Viana" instituzioan. Aurreproiektu honetan agertzen denez eta "Principe de Viana"ren arauekin batera kanpokaldea eta teilatua moldatuko lirateke hasiera batean. Herrian dauden etxeetatik politenetakoa da Eskola - Zar eta bere moldatzeak itxura haundia emanen dio Herriko Plazari.

Olentzeroa prestatzen

Bukatuxeak izanen dituzte dagoeneko haur, gaztetxo eta ez hain gazteek Olentzeroa prestatzeko lanak.

Aurten ere Gabon egunean ospatuko da Olentzero lehiaketa (nolabait errateko). Badabiltza alde batetik bertzera atera behar dutenak ezpela, maskarak, arto txiritxak, karruak etabar... bilatzen. Ikusiko dugu zeinen polita ateratzen den.

ARANTZA

Arantzako Udalak asto baten zerbitzuak kontratatu

JON LARRETXEA

Beti albiste serioak ez ditugu eman beharko, beraz, oraingoan bitxikeri batekin natorkizue.

XX. mendean asto baten zerbitzuak kontratatu alajaina! Holakoxeak gaituzue aranaztarrak. Autentikoak!!!

Bertzerik gabe goazen gaiara. Arantzako mendietan zenbait obra egin behar zirela eta leku malkartsuak izaki. Asto bat erostea proposatu zieten mendi sailetako zinegotziek Udalari.

Astoa, beharrezkoak ziren materialeak garraiatzeko erabiliko zen, ez bait zegoen makinaria erabiltzeko aukerarik. Hala ere, Udalak ongi deliberatu ondoren ezetza eman zuen.

Nonbait gaurko burokrazia hagitz astuna izaki, edozein gauza erosteko ere nolabaiteko formulismoa erabili behar omen da eta arrunt luze emango omen zuen. Gainera, ez

☞
(bertze aldean segitzen du)

omen zegoen diru partidarik holako erosketa bat egiteko destinaturik.

Baina ez zuten burokrazia astunak Pantaleon desanimatu, laister aski bururatu zitzaion soluzioa. Eta bi aldiz pentsatu gabe Lesakara joan, astoa erosi eta berriz ere, Udalari astoaren zerbitzuak eskeini zizkion.

Oraingoan baietza lortu zuen eta hor dabil astoa lan eta lan fin demonio. Gainera astozainak erran digunez arrunt gustora omen dabil Arantzako mendietan.

Ez dakiguna zera da, ia zer egoeratan gelditukoden asto gaixoa lana hori bukatzean, langabezian beharbada??



Asto gaixoak INEM bulegoaren aurrean

Eskola Kontseilua gurasorik gabe

Eskola kontseilua aukeratu da bainan gurasoen errepresentaziorik gabe gelditu da oraingoz, izan ere ez bait da inor prest azaldu zulo hori betetzeko.

Nonbait, sukaldari hautaketan izan ziren istiluak medio, gurasoak hagitz aspertuak omen daude bainan hala ere, hagitz penagarria iduritzen zaigu zenbait zailtasunengatik inor ez aurkeztea eta eginbehar garrantzitsu horri paso egitea.

Espero dugu, ez dela gauza horretan gelditukoeta laister konponduko dela.

Abenduaren 13an Hauteskunde sindikalak eskolan

Bai, hauteskunde sindikalak izan ziren hilaren 13an eskolan. Hau dela eta arratsaldea libre izan zuten ikasleak.

DONAMARIA

Sortze baino heriotza gehiago

SARA eta NATALIA

Orain dela urte batzuk, bere araberan, kriston herria genuen. Bainan azken aldi hontan, izugarrizko beheraldia izan du. Alde batetik, lan asuntoa nahiko gogorra dago inguru honetako jendeentzat eta bertzalde, guk egindako inkestaren arabera, jendeak ez du bi edo hiru ume baino gehiago izan nahi.

Ehiza

Ehiztari ausarki, baina ehiza gutti. Aurten ehiztariek gutti gozatu dute. Hala eta guztiz, Donamarian mendi aunitz ditugu. Horrela, bada, bi zatitan banatu dira (zeren eta zertarako bada, hainbertze mendi? zozo ergel bat hiltzeko!) Horrela, erdia herriarentzat eta bertze erdia kanpotarrentzat. Kanpotar hauek Donamariako postuetan azken urtea izan dute. Hauentzat, mendirik hoberenak sorteatzen dira. Beraz, heldu den urtean berriro ere, Txarute, Golbai, Uztalakorla, Labiaga eta Bidakorri sorteatuko dira. Eta herriarentzako gelditukodirenak berriz: Basaun, Troskata, Zimizta, Amezketa eta Larrapil. Baina zertarako dauzkate hainbertze mendi? Gure ustez, andreak hasi beharko dutela ehizean, bertzela... Hemengoak diotenez:

"Ez da harritzekoa aurten ez hiltzea deus, zeren eta usoak Frantzitik etortzean, hango ehiztariek hagitz ongi bazkatzen dituzte eta gero gu usorik gabe".

ZUBIETA

Elurra iritsi dela !!!

JUAINAS

Pasatutakoan elurra nagusi, goiztiarra izan bait dugu ! Politena, dena den, zein jarrera ezberdinak kanporarazten dituen ikustea da. Esperon ginauden guztiok... batzuk egurra pilatuz... haurrak plastikoak eta trineoak prestatuz... heldu da! Hementxe dugu!

Aziendak barrura, haurrak kanpora! Sasi - haurrak direnak ere bai, noski!!!

Eta Dendaingotarrak, parentela eta guzti, bolaka jo ta egur! Herriko plaza ere bereganatu zuten.

Las Hurdes - en lantegia?

Hala eskeini omen diote zubitar mutil talde bati... tratuan ari omen dira... harat lantegi hartzera? Munduaren beste parte bat ezagutuko dute. Hori bai, hartuz gero, joan eta etortzerakoan Lutxi eta Paulo bisitatu gabe ez utzi, Ponferrada ilun horretan bait daude.

Ostatuaren obrak

Ostatuaren obrak aurreratzen ari dira, majo! Kezka bakarra Iñotitakoa dugu.

Iñotik non eginen dira?

Non gazteak bildu?

Estalpea lehen bait lehen moldatu beharko da, ferratokiko sukaldea bestela lekurik gabe geratuko bait da.

Zorionak!

Hurrengo TTIPI - TTAPA atera orduko 1991ean egonen garenez gero, sarrera ona eman, zaindu gibela, gehiegi ez edan eta Bordatxotik ez gero azaldu!!!

On dagizuela!

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

DONAMARIAKO BENTA

Tfnoa: 45 07 08 - DONAMARIA

URTE ZAHARREKO AFARIA

Mahai erreserba

Urdaiazpiko eta langostinoekin saltsatutako
Mangoak edo Itsaski-zipristina

• • • • •

Antzar Moussa sagar konpotarekin
edo Pasta freskozko entsalada opila

• • • • •

Tranguru barruboka labean erre
edo Solomiloa errefutaz

• • • • •

Gaben konpota edo Intxaur saltsa

ETXEKO ARDOA
ROVELLATS CAVA

PERTSONAKO PREZIOA
4.000.- Pzta.

BEREAU Jatetxea

Lesakako zubia, Tfnoa: 637382 - LESAKA

URTE ZAHARREKO AFARIA



Urdaiazpikoa
Esparragoak
Kroketak
Almejak
Langostinoak

Solomiloa
Postrea
Kafe eta kopa
Chanpagne
Ardoa

Pertsonako prezioa
4.500 Pzta.

ITUREN

IBAN ISASI

Abenduaren 9an, igande goizeko 7etan hain zuzen, hasiera hartzen zuen elur tenporadak. Honen ondorioz errekak izugarri haunditu ziren, sotoen inundazioa jasan genuen, erdal telebistarik gabe geratu ginen eta argindar eza ere sufritu genuen. Dena dela, haurrak kontent zeuden, gorroa, gomazko botak, ederki arropatu eta han ibili ziren plastikoekin, batak besteari elur tiraka.

Eskola kontseiluaren hautaketa

Abenduaren 11an Iturengo Eskola Publikoetan gurasoen artean hauteskunde edo elekzioak egin ziren. Hauteskundeetako emaitzak hurrengoak dira: Kontxi Etxepeteleku 38 botu, Trini Erasun 36 botu, Jose Bereau 22 botu



Roxa Aiestaran 16 botu eta Joxe Mari Mindegia 12 botu, baliogabeko bi botu eta 5 abstenzio.

Beraz Eskola-kontseiluan Kontxi eta Trini sartuko dira.

6 kilotako onddoa aurkitu Aurtizen

Gezurra badirudi ere halako onddoa harrapatu zuen Apezeneako Jose Mari Mikeok.

Aurkitutako onddo mota honek "Calvatia gigantae" darama izena latinez eta euskaraz astaputz erraldoia dauka.

Inguru honetan ez da oso normala pisu honetako onddo bat aurkitzea, batez ere mota honetan, dena dela azken urte hauetan, Arizkun herrian beste batzu aurkitu dira, baina oso gutti.

Onddo mota honek hamar kilo hartzera hel daiteke, hala ere Inglaterran 25 kilotakoa aurkitu zen, errekorra. Fresko dagoenean jan daiteke, baina ez dauka balio gastronomiko haundirik.

Urte Zaharreko afaria

Urtero bezala, aurten ere eguberriak datozenean zenbait afari eta besta antolatzen dira herrian, hauetako bat urte zahar arratseko afaria da, ondoren musika egoten delarik. Honela urte zaharra alaitasunez agurtzeko eta urte berria umorez hasteko aukera daukagu. Bestalde, esan behar da apuntatzeko ohizko lekuetara jo behar dela.

Hementxetik zorionak eta urte berri on bat opatzen dizuet Iturendar eta TTIPI-TTAPA irakurtzen duzuen guztioi.

SUNBILLA



Sunbillako saihesbidearen proiektua

Bariantearen aurrekontua onartu

Lanen hasiera ez da zehazten

PATXI PETRIRENA

Sunbillako saihesbidearen proiektuak jaso du Obra Publikoetako saila-

☞ (bertze aldean segitzen du)

ren onespena, bere aurrekontua 1.163 milioi pezetatakoa delarik. Proiektuan kilometro erdiko tunela, Errekaldearen gainetiko biaduktoa eta Bidasoaren gainetiko zubia sarten dira

Proiektua burutzeko hogei hilabetetako denbora ematen da, baina ez da aipatzen lanak noiz hasiko diren.

Basurde haztegia

Esperientzia berezia ari da ematen Sunbillan ehiztari talde baten eskutik. Orain dela urte pare bat, mendietan basurderik ez zela eta (urte batzuz franko hiltzen bait ziren), bi basurdekume erosi eta hazi zituzten. Geroago, basurde aketza erosi zuten eta ugalketari hasiera eman zitzaion horrela, lehenbiziko umealdian bederatzi kume sortuz. Bigarren umeadi bat ere etorri zen geroago, bórtz kume berri jaioz. "Familia" guziarentzat bizileku egokia prestatua dute Arretxenbordako erreka aldean alkilatutako lur batean: urdandagi gisa egindako txatola eta larratzeko lekua hesiz inguratua. Dagoeneko gizakiekin bizitzen ohituak omen daude (bazka emanez hezitzen ez den abererik ba ote dago?), eta bertara hurbiltzen diren bisitariak ere ez bide dira gutti, herrikoak nahiz ingurukoak. Izan ere, horrelako "zoo"rik ez bait da ezagutzen inguru honetan.

BERTIZARANA

Komunalak mugarriztatzeko bi legegizon kontratatu

Iratzelai, gaztaindegi eta hariztegiei buruzko alegazioak aztertzeko

TXEMA ALDABE

Udalaren eta herritarren ordezkari batzuk Nafarroako Gobernuko Mendi Saileko zuzendariarekin elkarrizketatu ondoren (zenbait herritarrek katastro berria dela eta ziztuzten kexen ondorioz), Bertizaranako Udalaren azken plenoak bi legegizon kontratatzea erabaki zuen, Anselmo Gallego eta Miguel Javier Etxarri hain zuzen ere, iratzelai, gaztaindegi eta hariztegiei buruzko alegazioak aztertu eta legozkiekeen kalifikazioak emateko.

Kontzejuak lege berriaren aurka

Uztailean onartu zuen Parlamentuak Nafarroako Herri Administrazioaren lege berria, Udal, Kontzeju eta abarren konpetentziak mugatuz. Lege honek aldaketa ugari dakar, orain arte kontzejuenak ziren konpetentzia franko Udalen esku utziz. Hau dela eta, azaroaren 24ean Nafarroako Kontzejuetako ordezkarien bilera egin zen Astrainen, erakunde hauen autonomiaren alde aritzeko komisioa sortu zelarik. Honekin bat egin dute Bertizaranako kontzejuek.

Oieregi

Oieregiko Kontzejuaren Batzarreak azaroaren 23an onartu zuen Plaza berria egiteko obraren aurrekontua, 7.917.532 pezetatakoa.

Narbarte

Onzenako Juntak, azaroaren 26ko bileran, osotara onartu zuen Nafarroako Gobernuak euskarazko irratiei baimena ukatu ziela eta Eusko Alkartasunak aurkeztutako mozioa. Kontzeju honek eskatu du Nafarroako Gobernuak erabaki arbitrario hori zuzen dezan, Xorroxin Irratiak eta Euskalerria Irratiak legearen babesean emititu ahal izateko baimena emanez. Era berean, euskarazko irratiak izateko euskaldunok dugun eskubidearen aldeko herriekimenak laguntzeko borondatea adierazi zuen.

BAZTAN

Baztandarren Biltzarrak, eguberritarako ekitaldiak prest

Kultur, kirol eta zine-emanaldiak bertzeak bertze, ia-ia egunero

MAÑONE

Honekin hamekagarren urtea dugu, Baztandarren Biltzarra Elkarteak eguberritarako aktibitate ausarki prestatzeari ekin diola. Abenduaren 14ean hasi eta urtarrilaren 6a bitarte, ia-ia egunero izanen da zerbaite ikusteko aukera. Aktibitateak ez dira bakarrik Elizondon burutuko. Arraiotz, Arizkun, Almandotz eta Amaiurkoek ere izanen dute bertan zeozer ikusteko aukerarik.

FILMEAK **"Las cartas de Alou"**, 25ean. **"Negocios de familia"** urtarrilaren 1ean. **"Ovejas negras"** 6an. Guztiak El Pilar-en eta 7,30etan.

DIAPOSITIBAK **"Sagarmanta 90 espedizioa"**, 28an, Arizkunenean 8,30etan. **"Alpeak"** urtarrilaren 2an Arizkunenean 8etan. **"Euskalerriko iñauteriak"** 3an, Almandozko eskolan 8etan.

KROSSA Abenduaren 23an, Elizondon barna.

BERTSOAK Abenduaren 22an, Arizkunenean 5etan :*Lazkaotxiki-Zeberio-Arozena-Elizagoien-Amorena* eta *Fagoaga*. Gaiak: *Mariano Izetak*. Ondotik, afaria Zozaiako Elkartean.

BIDEOAK **"El Salvador"i** buruz urtarrilaren 4ean, Arizkunenean 8etan **"Lurralde alternatiba"** 26an Arizkungo Elkartea, 8,30etan eta 5ean, Amaiurko Elkartean ordu berean.

Milaka lagun Xorroxin kalejiran

Abenduaren 8an, Elizondoko karrikak jendez bete ziren, Xorroxin irratiari lizentzia ematea eskatuz. Eguerdiko 12,30etan plazatik kalejira abiatu zen. Jaime Urrutia, Braulio Iriarte, Mendinueta eta Santiago karrikak pasatu ondoren, ordu bat beranduago, plazara iritsi zen.

Txistulariak irekitzen zuten martxa. Gibeletik, haur batzuk kartoizko behi bat zeramaten eta honek "Nekazariek Xorroxin irratia behar dugu" lema. Gero, pankarta bat heldu zen "Euskarazko irratien legalizazioa" lemarekin Iruñeako Euskalerria irratia eta Xorroxin irratiak sinatuta.

Arizkun, Sunbilla eta Lesakako dantzariak ere bertan egon ziren eta baita ere, Arizkungo zankoak, hauek irrati erraldoi bat zeramatelarik lizentzia eskatuz.

Eguraldiari buruz, txarra izan zela erran beharra dago, nahiz eta ibilbide gehiena ateri egon, azkeneko zatian eurijasa ederra bota zuen. Plazan, Joseba Igarabidek komunikatu bat irakurri zuen, bertan bildu ziren mila lagunen aintzinean. Hauei eskerrak eman ondoren, mobilizazio honen arrazoietaz eta baldintzetaz aritu zen, Nafarroako Gobernuaren jarrera salatuz.

Komunikatua irakurri ondoren, bertsolariak, trikitilariak eta txistulariak aritu ziren.

Erretore berria Erratzu eta Iruritan

Orainarte Berako erretore zen Jose Maria Apeztegia izanen da hemendik aintzinerat Erratzu eta Iruritako erretore berria.

M. Jose Iñarrea

Erratzuarra suertatu da Baztango Udalak antolatutako argazki lehiaketaren irabazle.

Bai, baina eseautomatix eta ordenalfabetix oraindik erdaraz ari dira arraioa! ZE PENA!

Oye enanux ¿ has entendido de lo que dice estos aldeanos ?
na de ná

bai, denok ari gara alfabetatzen, bi horiek ez besterik

behar bada gaurko gaŝo afarian Konpondu
kegu egoera ha sorpresa bat em diegu...



Leitzaldea Telf. 61 07 76
Malerreka Telf. 45 06 97
Bortziriak Telf. 63 77 96

BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA ETA
MALERREKAKO EUSKARA

B.E.B.

Epertegiak negozio ederra

MARGARI eta KORO



Gan den urtean edeki zen epertegi bat Katalaneko - bordako kaskoan, guk berri eman ginuen bezala. Esaten zutenez, negozio on bat omen zen, eta iduri duenez, hala da: orain haunditzen ari bait dira hura bera bertze bi mila bikote eper sartzeko moduan. Eperren arroltzeak ongi ordainduak dire, eta lan pixka bat eginez diru polita ateratzen omen da.

Eia berriak baserrietan

Nekazariek laguntza pixka bat izateko Komunidade Europeak subentzionea ematen du behien eiak edo gorta berriak egiteko, eta hala Zugarramurdin egin dituzte Malasta eta Maxintxenekoek eia berriak. Bat 30 eta bertzea 32 behientzat dire, eta eginak diren moduan nekazariei lana errexten zaiote pittat, behi guztiak toki berdinean izatean eta ez lehenago bezala zortzi behi lau tokitan, behiak ere aunitzez garbiagoak direlakoz eta ondarreko, hoberena, ez dutela azpiak ateratzeko lanik orain zisternekin hedatzen dituztelakoz parrilletatik joaten diren piza guztiak.

Nagusiek diotenez, laguntza haundia omen da bainan hala ere, diru pila bat atera behar omen da sakeletatik.

Juan Joxeren lehen meza Zugarramurdin

Gan den igandean, abenduaren 9an, Zugarramurdiko elizan jende multzu bat bildu zen Juan Joxe Bergararen lehendabiziko meza ospatzeko hemen bere herrian eta bere elizan.

Gan den igandean, Baionako apez - pikuak Sarako elizan egina zuen Juan Joxe apez berria, bainan hemen oraindik ez ginuen horrela ezagutzen. Erran behar ere, meza hau eskeinia izan zela Xabier eta Luis Mari Amorena zirenentzat, aurten hildako bi anai gaztеentzat.

JAVIER
Elektrogailuak
TB•Bideo•Soinua
Saskaitz Plaza
Tf:58 04 61 - ELIZONDO

FOTO MENA ELIZONDO
Ezkontzetako erreportaiak
Argazkiak eta bideoa
Tfnoa.: 58 01 55
Santiago 40
ELIZONDO

«ZALDUBI»
SUKALDE MOBLEAK
Altzari fabrikazioa eta muntaia
Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 45 20 77
IRURITA - BAZTAN

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO

FOTO ZALDUA
Argazkiak, Bideoa, Markoak
ELIZONDO TF: 58 04 91
DONEZTEBE TF: 4503 64

SARA

Olain Elkartearen ageria

OLAIN ELKARTEA

Azkeneko biltzar nagusia iragan zen 89ko ekainean. Beraz, heldu den abenduaren 29an, arratseko 7etan Gaztetxean izanen da aurtengo bilkura nagusia.

Aktibitateen bilduma egitea eta geroko ospakizunen egitarauaren aipatzea eta nolazpait apailatzea izanen da gure sedea.

Ondotik aperitifa eskeiniko da bilkuran izanen diren guzieri.

Gaita ikasgaiak

Aktibitate berri bat nahi izan du Zazpiak Bat dantza taldeak sortu. Gazteen galderei ihardetsiz, erabaki dute bi gaitero famaturen jin araztea gaita jotzen erakasteko. Jadanik 8 ikasle badira. Kurtsoak oraitik goiti iraganen dira larunbatetan arratseko 6etan Gazteen Etxean.

Erran zaharrak

- Abendoko eguna, argitu orduko iluna.
- Abendoaren erdia, gaua; ta bertze erdia besta.
- Abendoan elurra altzairuz, urtarrilean burdinez, otsailean zurez, martxoan lurrez apirilean urez.
- Urteaz ez erran gaizkirik abendoa burutu arte.

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA
Michel Guerendiain
SARA - LAPURDI

IPINGI
ZORIONAK ETA URTE OPARITSUA
Santiago 88, Tfnoa: 580939 ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea
Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan
AMAIUR Tfnoa: 45 30 00

SARDASOL
LERINgo ardo gorri eta beltzak
Banatzailea:
Manuel Taberna
Tfnoa: 63 10 27 - BERA

URDAZUBI

Ailegatu da elurra gure mendietarat

ALIZIA OLAIZOLA

Urdazubin elurra gutitan egiten du, bainan aurten ailatu zaiku herri ttiki hontarat elurra. Oraindik herrian ez dago elurrik baina mendietan bai. Abenduaren 8ko arratsean hasi zuen Otsondoko gainean elur aunitz, eta hemengo gazteak besta egiterat joanak zirenak, etxerakoan problemak izan zituzten pasatzeko. Izan zen baita ere istripu txiki bat Dantxarineako auzoan: Hemengo gazte bati kotxea errekan sartu zitzaion gezteran ibilki zizkiolakoz erruedak eta arbol bat jo zuen.

Bertze istripu ttiki bat ere izan dugu Urdazubin frango seriosa. Argiak joan zaizkigu herri guzian, eta horrelaxe bi egun argi gabe egon gara.



Landibarko auzoa

Mus Txapelketaren hasiera

Abenduaren 8an hasi zen Urdazubiko mus txapelketa, aunitz bikote dira musean jokatu behar dutenak. Txapelketa hau hiru kategoritan banatzen da. Muslari hauek ez dira denak Urdazubitarrak, badira baita baztandarrak... hemen lan egiten dutenak etabar, eta horrelaxe izaten da giro ederra "Indiano Baitan".

Zabor bilketa ez da auzo guztietara iristen oraindik

Zer pasatzen da zabor bilketarekin? Lehenago aipatu genuen bezala, hiru auzo gelditzen dira zaborrak bildu gabe, lehenago erran ginuen bezala auzo hauek dira: Iribere, Landibar eta Larrainta.

Ez dira auzotar hauek batere kontent, zeintaz bertze auzo guziei biltzen diete zaborra.

Behar bada, hori dena bide txarrak direlakoz izanen da.

Udalak egiten zerbait hau moldatzeko, horixe pentsatzen dute behinpin auzotarrek.

SUMINISTROS YANCI

<<GODIN>> Tximiniak eta berogailuak

BAINUAK ETA MOBLERIA

<<PORCELANOSA>> eta <<VENIS>> zeramikak

Zaldubia industri poligonoan

Tfnoa.: (948) 580 109 **IRURITA**

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Tfnoa.: 63 11 88

ZORIONAK·ETA URTEBERRI ON!!

LEITZA

Mendialdeko Abesbatzen topaketa



Leitzeko "Asketa". Antton

"Asketa" : neska mutikoak. Antton

Lesakako Abesbatza Antton

ANTTON

Altsasu, Etxarri - Aranatz eta Leitzeko abesbatzak elkartu ziren, kantari , lehengo larunbatean Leitzan.

Urtero elkartu ohi dira Nafarroako koralak zonaldeka. Mendialdekoak lehengo urtean Lesakan bildu ziren, eta Leitzan aurten. Larunbata iluntzean, hemengo elizan, herri bakoitzak launa kantu eskeini zuen, eta lau koralak elkarrekin eguberritako bi kanta.

Guztiz ederra izan zen saioa, eta baita afal orduan eta afalostean sumatzen zen giroa.

Leitzeko abesbatza punta puntan ibili zen P. Irurtia zuzendariaren garai hartan. Gogoratzekoa 50 gizon - emakumek osatzen zutela, eta Estatuko txapeldunak atera zirela Ejea de los Caballeros hirian, eta munduko bigarrenak Gales - en egin zen sariketan. J. J. Aizkorbe apaiza zegoenean ere lan bikaina egin zen kantu mailan, baina gero urte batzutan mottel egon da.

Gaur egun, "Asketa" Abesbatza indarberritua agertzen zaigu: 60 neska - mutiko umeen taldean eta dozena bat neska gazte taldean biltzen dira, J. B. Irazoki zuzendari dutela.

ttipi-flash

• **Lantegi berri bat** herrian ezartzekotan dabiltza. FIX S.A. Orioko arrain industria dabil leku egoki baten bila. Txipiroi garbiketa eta izozketan ariko litzateke, eta 30 emakumeentzat izanen luke lana, asmoa egi mamitzen bada.

• **Amnistiaren aldeko batzordeak** antolatutako hitzaldi eta afarira 120 leitzar bildu zen. Gaua hotza bazen ere, oso giro epela jarri zuten trikitilari, bertsolari eta txiste kontalariek.

• **Elurte** ederra bota zuen abenduaren bigarren asteburuan, Astelehen hartan, Leitzeko plazan 30 zentimetrotako elurra zegoen, 40 - 50 zentimetrokoa Ezkurrako gainean, eta 65.koa Uitziko gainean. Ederki igerri zion "Miltxonbordako" Joxek irailako *t*TIPI - TTAPAN !!.

• **"Aurrera" Elkartearen** egoitza berriaren inauguraketa abenduaren 23an izanen da. Herri pesta: dantzariak, kirolak, musika. Eguerdian herri bazkaria. Ikus 30. orrialdean.

Ohiturari jarraituz, zorionak, lagun, egun eder batzuek goza ditzagun.

GOIZUETA

"Goizuetarrak" antzerki taldeak Azpeitiako topaketetan parte hartu zuen

ESTEBAN AROZENA

Orain dela hilabete batzuk Goizuetako Euskara Batzordeak sortu zuen "Goizuetarrak" antzerki taldea, hain ospetsuak diren Azpeitiako topaketetan parte hartu berria da, beste toki askotan eskeinitako emanaldien antzera arrakasta ederra lortuz.

Topaketa hauetan, Euskalerri osoko hamazazpi talde ezagunenak izan dira partaide, eta ohore haundia izan da goizuetarrentzat hain ezagunak diren beste hainbat antzerkilariekin batera beraien artea erakustea.

Hasiera batean herriko inauterietan errepresentazio bat emateko asmoarekin sortu bazen ere talde hau, orduan lortutako arrakasta ikusirik eskenategietan jarraitzeko erabakia hartu zuten, eta horren ondorioz beste zazpi herrietan "Goizuetan bazen" obra ikusteko aukera izan dute, hain zuzen, Leitzan, Añorgan, Oreretan, Lizarran, Iruñean, eta aipatu dugun bezela Azpeitian.

Emanaldi kopuru honek adierazten duen bezela, Goizuetaz kanpo errekonozimendu bat lortu du taldeak. Hala ere, gure herriari dagokionez ezin da gauza bera esan instituzio aldetik behintzat, hainbat subentzio eskaera luzatu arren ez baitu oraindik pezeta bat ere jaso Udal kutxetatik. Gure zonaldeko Euskara Zerbitzua Udala baino askoz eskuzabalagoa izan da, eta dirulaguntza bat emateaz gain, Leitzan eskeinitako aktuazioa ordaintzen lagundu zuen.

Eskola kontseilu berria

Andres Narbarte "Xalto" eskola publikoko irakasle, ikasle eta gurasoek eskola kontseilu berria hautatu zuten hil honen 11an burutu ziren hauteskundetan.

Ondorengo hauek osatuko dute datozen bi urteetan kontseilua: **Irakasleak**: Maribel Lujanbio, Maite Ortigosa, Ana Urdangarin, Jokin Regales, Marian Laidalga, Pilar Lujanbio eta Koro Etxeberria. **Gurasoak**: Eduardo Tato, Jose Luis Arozena eta Mª Jesus Zugarramurdi. **Ikasleak**: Rakel Iarza eta Ainara Narbarte. Hauei, Udalaren ordezkari bat gehitu behar zaio.

URTE ZAHAR AFARIA

Leitzako gaina, Tfnoa: 510125 - 510551

- Champagne Cocktail-a
- "Entremes" bereziak:
  - –Jabugo urdaiazpikoa
  - –Zainzuri edo esparragoak
  - –Langostino egosiak
- Hegazti salda
- Itsasapoa almejekin, saltsa berdean
- Solomiloa barrilan, Roquefortaz
- Txokolate zuri-beltz sorpresa
- Maguri sorbetea eta mazapaniloak
- Kafe eta kopa
- 1970ko Campo Viejo-a
- Freixedas Cava

6.500+%6a IVA

ZORIONAK ETA URTEBERRI ON!!

MIKEL LABOA

Abenduaren 22an Leitzako zineman gaueko 10,30etan

EZKONTZAK

Angel Oteiza Inzierte eta **Asun Unanue Goñi** Legasakoa eta Gartzaingoa, abenduaren 7an.

Didier Pierre Zelie Joussome eta **Mª Aranzazu Mortalena Salaburu,** S. M. de la Rochelle eta Erratzukoa, abenduaren 1an.

Santiago Merino Landaluze eta **Ana Luisa Leiza Oteiza Corella** eta Elizondokoa, abenduaren 8an.

Beñat Echegaray eta **Marie Helene Guilsou**, Sarakoak, Abenduaren 12an.

Juan Bautista Astibia Olano eta **Maria Jesus Zabaleta Legarra**, Leitzakoak, abenduaren 22an.

JAIOTZAK

Patxi Istilart Etxeberria, Amaiurren, irailaren 6an.

Nerea Iriondo Errandonea, Berakoa, azaroaren 9an.

Alaia Altzugarai Legazkue, Lesakan, Abenduarem 1an.

Egoitz Olagarai Arranbillet, Etxalarkoa, Azaroaren 29an.

Sara Agesta Jaunsaras, Almandozkoa, Azaroaren 25an.

Urki Aldako Bertiz, Elizondokoa, Azaroaren 28an.

Joseba Ozkariz Telletxea, Lekarozkoa, Abenduaren 1an.

Julie Lamothe, saran, Abenduaren 1an.

Haritz Sagastibeltza Arroki, Leitzakoa, abuztuaren 14ean.

Mikel Arizteta Bengoetxea, Leitzakoa, urriaren 7an.

Luisa Lasarte Arruza, Leitzakoa, Irailaren 14ean.

Sonia Elizondo Erasun, Beintza-Labaingoa, abenduaren 5ean.

HERIOTZAK

Mª Belen Ormazabal, Etxalarkoa, Abenduaren 2an, 43 urte.

Eli Apezetxea Etxeberria, Goizuetakoa, abenduaren 9an. 15 urte.

Lorenzo Arozena Arribillaga, Goizuetakoa, abenduaren 8an. 70 urte.

Hipolito Apeztegia Tapia, Lesakakoa, Abenduaren 5an, 51 urte.

Isidra Oños Segura, Elizondokoa, Abenduaren 6an, 87 urte.

German Laurnagarai, Erratzukoa, abenduaren 9an, 76 urte.

Joset Berecoechea, Sarakoa, abenduaren 1an, 87 urte.

Josefa Rekondo Zabaleta, Leitzakoa, abenduaren 5ean, 78 urte.

Juana Perotxena Elizalde, Saldiaskoa, abenduaren 8an, 73 urte.

Elias Gomez Martinez, Narbartekoa, abenduaren 8an, 66 urte.

Josefa Bertiz , Sunbillakoa, abenduaren 10ean, 67 urte.

Francisca Albistur Ariztegi, Beintzakoa, abenduaren 2an, 99 urte.

Juana Elizalde Erasun, Saldiaskoa, abenduaren 7an, 93 urte.

LEIZA
Elektrogailuak
MASTER KATEA
PHILIPS THOMSON ITT SONY PANASONIC SELECO SHARP
SANYO ELBE TECKNICS BLAUPUNT FAGOR ZANUSSI ZANELA
BOSCH BALAY INDESIT AEG OLIVETTI MOULINEX
Santiago 27, Tfnoa: 58 03 51 - ELIZONDO

*ttipi-ttapa*k antolaturik

I. NARRAZIO LABUR, KOMIKI ETA ARGAZKI LEHIAKETA

1. ***ttipi-ttapa***k, gure inguruan euskaraz egindako literatur eta komiki produkzioa alde batetik eta bertzetik argazkigintza bultzatu nahirik, 60.000 pezetako sariez hornitutako lehiaketa antolatu du. Lehiaketa, aipaturiko 3 sailetan banatzen da: Narrazio Labur, Komikia eta Argazkia.

2. **Sailak, gaiak eta arauak:**

● NARRAZIO LABURRA

GAIAK :EROTIKOAK, HISTORIKOAK, BELTZAK...

BALDINTZAK:
a) Euskaraz idatzita egotea.
b) Jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izatea.
d) Gehienez lau orrialde, bi espaziotara eta paperaren alde batetik idatzita.

● KOMIKIA

GAIA: LIBREA

BALDINTZAK:
a) Formatoa: Folio tamainan edota neurri horrekin proportzioa daukan paperetan.
b) Modalitateak: • Zuri-beltzean; • Koloretan.

● ARGAZKIA

GAIA: TTIPI-TTAPAREN INFORMAZIO-EREMUA ETA BERE JENDEAK.

BALDINTZAK:
a) Formatoa: 18 x 24 zm.
b) Modalitateak: • Zuri-beltzean; • Koloretan.

3. **AURKEZPENA:**

a) Lanak ***ttipi-ttapa***ko bulegoetan aurkeztuko dira **1991ko urtarrilaren 30a baino lehen.**

b) Izengoiti batez sinatuak aurkeztuko dira. Aparteko sobre itxi batetan, azalean lanean jarritako izenorde bera idatzita daukala, egilearen izena, helbidea eta telefonoa jarriko dira.

4. **SAIL ETA MODALITATE EZBERDINEN SARIAK:**

a) Narrazio laburrean: 15.000
b) Komikian: 15.000
d) Argazkian:
Koloretan: 15.000
Zuri-beltzean: 15.000

e) Sari hauez aparte, epaimahaiak 10.000 pezetatako 3 aipamen berezi emateko aukera izanen du, sail bakoitzean bana.

5. Epaimahaia, lehiaketaren gai-ezberdinetan adituak diren lagunez osatuko da.

6. Saritutako lanak ***ttipi-ttapa***ren esku geldituko dira. ***ttipi-ttapa***k, lehiaketa bera ezagutarazteko helburuarekin, aurkeztutako lan guziekin erakusketa bat antolatzeko eskubidea beretzat gordetzen du; egilearen izena argi eta garbi aipatuz beti ere.

7. Antolatzaileek, oinarri hauetan aurrikusten ez den/diren ustegabekoak erabakitzeko ahalmena beretzat gordetzen dute.

8. Lehiaketan parte hartzen duten pertsona guziek arau hauek onartzen dituzte eta sort daitekeen edozein arazoren aintzinean antolatzaileen erabakietara lotuko dira.

Oinarri hauetan nahikoa argitzen ez den zerbait balego, deitu (948) 63 11 88 Tfnora.



. 1922an fundatutako etxea

VIRGILIO
Oinetakoak

VIRGILIO OINETAKOAK

Santiago, 32
Tfnoak: 58 02 02 - 58 02 79
ELIZONDO

ttipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA
Tfnoa.: 63 11 88

ZORIONAK ETA URTEBERRI ON!!

Mendi nekazaritzaren etorkizun larria

Agian titulu honek ez dizue gauza haundirik errango baina Europako legedian mendi nekazaritzari ematen zaion definizioa begiratzea bertzerik ez dago: Lur aldapatsu, eremu txikietan eta produzitzeko lurralde zailetan ematen da mendi nekazaritza. Beraz, gure baserriaren etorkizuna egoera larrian dago, izan ere Nafarroako lurretatik lautik hiru mendi nekazaritza edo zonalde desfaborezitua bezala izendatuak daude; eta hau nekazaritza intentsifikatu eta produktibista bat egiten duen merkatu europarraren aurrean, estatu espainola bertan sartu zenerako, esne edota gari gehiegi produzitzen zuen Europako Ekonomi Elkarteko merkatu eszedentarioa, hain zuzen.

Baserritarra egoera honetan irtenbideak bilatzera behartuta dago, bai bere kabuz edo bai administrazioaren laguntzaz, Europa mailako nekazaritzarekin konpetitzea ezinezkoa baita, kantitateari dagokionez, behinipehin. Horregatik, Nafarroan lege orokor bat egin zen, zenbait neurri bereziekin: Udalek, diputazioak eta Gobernuak laguntzak eskeini behar dizkio baserritarrari, bideak, baserriak, hezkuntza eta beste hainbat behar betetzeko.

Lege nahiko ona egin zen bai, baina Nafarroako Gobernuak ez du oraindik aplikatu ezta aplikatzeko intentziorik ere.

Honen ordez, ICM edo Indemnizaciones Compensatorias de Montaña izenez ezagutuak diren dirulaguntzak poltsikoratu ditzake baserritarrak. ICM honen bidez, mendi nekazaritza izateagatik, baserri bakoitzak eskari bat egin eta diru bat bueltatzen diote bere beharren arabera. Behar hauek ez dirudite hain haundiak direnik administrazioaren begietan, iaz gehienez 72.000 pezeta lort bait zezakeen baserritar batek. Diru kopuru hau hagitz eskasa da eta "partxe hutsa" bezala izendatu du Mikel Petrirenak, EHNE - Nafarroako lehendakariak.

Agroturismoa edo baserri - hotelak

Nafarroako bertze zenbait bailaretan izan duen arrakasta ikusirik, gure eskualdean ere baserrietako turismoa bultzatu nahi du Nafarroako Gobernuak, horretarako, prest leudeken baserritarrek hamar urteterako eta urtean lau hilabe-

tez bi gela alokatzeko konpromezua hartu beharko lukete, gosari zerbitzua eskeintzeaz gain.

Baserria turismorako moldatzeko egin beharreko obretarako dirulaguntzak ematen dira administrazioaren aldetik, obren aurrekontuaren % 60ra irits daitekelarik: % 30a estatuak jartzen du, % 10a Nafarroako Gobernuak, % 10a lortzen da mendi nekazaritza izateagatik, eta beste % 10a 35 urtetik behitiko nekazaria izanez gero; kontutan hartuz gehienez 5.400.000 pezetatako dirulaguntza jaso daitekela.

Baserria orokorrean hobetzeko, hau da, turismorako obretaz gain hobekuntza partikular batzu egiteko, gehienez sei miloi t'erdi pezeta eskura daitezke, beraz milioi bat pasatxo geldituko litzateke baserriaren berezko beharrak hobetzeko edo moldatzeko.

Irtenbide orokorra beharrezkoa

Mikel Petrirenaren ustez, "*irtenbide hauek onak izan daitezke partikularki, baserri bat aurrera ateratzeko baina ez dute mendi nekazaritzaren egoera orokorrean hobetzen*", azken finean baserritarrak bere soldata eta bere lanpostua den baserria defendatu eta berorretaz bere bizia duintasunez aurrera

ateratzeko eskubidea defendatu behar du eta ez eskupekoen bidez bizi.

Europako nekazarien produkzioarekin kantitatez konpetitzea ezinezkoa bada, kalitatearen alde apostu egin behar du euskal baserritarrak.

Petrirenaren ustez, "*jatorri - izena edo denominación de origen delakoak emaitza onak eman ditu, Idiazabalgo gaztaren kasuan adibidez, eta honek baldintza batzu eskatzen ditu; esnea Euskalerrikoa izatea, gaztagintza prozesu konkretu bat betetzea...*

Gauza berbera egin beharko litzateke beste produktuekin, hara nola haragia—Euskalerriko haragia edo— *horretarako kontsumitzailearen kolaborazioa ere beharrezkoa delarik, azken finean, bera baita erosi behar duena eta bera da zerbait gehiago ordaintzera prest egon behar duena produktuaren kalitatea kontutan hartuz*".

Honez gain, Noruegako nekazaritzaren kasua aipatzen du Petrirenak, bertako nekazariek soldata ezberdinak jasotzen bait dituzte Gobernutik: mendi punta edo lurralde txar batetan bizi den baserritar batek, hamar behiekin produzitzen duen esne litroa, lurralde on batetan ehun behiekin produzitzen den esne litroa baino gehiago ordaintzen diote, baserritarrek ingurugiroaren alde egiten duten lana gordetzeko asmoz; beraientzako baserritar guztiak beharrezkoak baitira.

Horra hor segitu beharreko eredua.

AITOR AROZENA

Oskar Txoperena: "Izugarri gustatzen zait trinketean jokatzea, frontoia baino biziago dela iduritzen zait"

Oskar Txoperena Igantzin jaioa da duela 30 urte. Ttikitatik pilotan ari izana da eta inguruko herrietan ospatzen ziren txapelketetan parte hartu izan du maila desberdin denetan. Duela hamarren bat urte hasi zen bere anai Mitxelekin batera trinketean aritzeko prestatzen eta duela zortzi urte ospatu zen Mexikoko munduko txapelketan hartu zuten parte lehen aldiz. Orain 4 urte, arazo batzu zirela medio, ez zuten parte hartzerik izan Gasteizko txapelketan eta aurten bere anaia Mitxelekin batera brontzezko domina lortu du Cuban ospatu den munduko txapelketan. Honezaz gain, azkeneko bi urtetan Euskalerriko txapeldunak gertatu dira. Orain berriki Cuban egon direla eta, Oskarren iritziak jaso nahi izan ditugu.

Zer moduzkoa izan da Cuba - ko esperientzia?

Esperientzi a hagitz polita eta aberasgarria izan duk nahiz eta kirol mailan ez nahi genuen bezain emaitza ona lortu. Hara ailegatuta osasun arazoak izan nizkian eta horrek gure planak piska bat aldatu zizkian. Lehen partidua bi anaiak jokatu behar genian baina nik jokatu ezin nuenez, Mitxelek Goñirekin jokatu zian eta bigarrenean berriz Larrañaga eta biok jokatu genian. Partidurik inportanteena Mexikarren kontrakoa huen, haiei irabaziz gero finala jokatzerik izanen bait genuen Iparraldekoen kontra. Partidu horretan selekzionatzaileak Mitxel eta Goñi jarri zizkian eta ez ziteken irabazterik lortu. Hurrengo partiduan, Mitxelek eta biok lortu genian brontzezko domina. Finala jokatzea espero bagenuen ere, irabazterik ez genian espero, Iparraldekoak garaitzea ia ezinezkoa delakoz. Dena den, kontutan eduki beharra ziok Mexikarrek joko maila altua dutela, ia profesionalak direla, Bionico ospetsuak eta bertzeak ere bizia horretatik ateratzen bait dute.

Eta orohar, selekzio mailan, nolakoak izan dituk emaitzak?

Inoiz lortu diren onenak izan dituk. Hamabi modalitate izanik, 6 urrezko domina, hiru zilarrezko eta bi brontzezko lortu bait dizkiagu, ez genian horrelako emaitza onik lortzea espero. Gainera, kontutan eduki behar dik aintzinako bi mundialetan Iparraldekoak gertatu zirela txapeldun eta aurten urrezko domina bi bakarrik eskuratu dituztela. Horrezaz aparte, betidanik segurutzat zeukaten modalitate batetan galdu ditek, trinketeko eskuz banakako modalitatean. Hori izugarrizko porrota izan duk ebentzako.

Hemengo prentsan garrantzi haundia eman zaio Euskalerriko pilotariei ikuriñarekin ateratzera utzi ez izanari eta horren inguruan gertatu den aferari. Zer gertatu da benetan, nola bizitu duzue hori?

Beno, lehenik erran beharra ziok mundialetan parte hartzerik ez duten

modalidadeetan; Joko - garbi, remonte, eta palaz frontoi luzean, exhibizio batzu montatu zituela Euskalerriko federakuntzak, nolabait kuña bat sartzearren ondorengo mundialetan Euskalerriko selekzioa bezala parte hartzen saiatzeko. Gaur egun, legeak agintzen duenaren arabera ezinezkoa duk, zeren estatu espainoleko selekzioak parte hartzen duen txapelketetan ezin bait dik inongo autonomiak selekziorik aurkeztu. Guk jaso genuen informazio bakarra Euskadiko selekzioko jendeak emandakoa izan huen, hau da; ez ziotela ikurriña eta pankartarik eramatea uzten Espainiako selekzioaren gibeletik, selekzio horren exhibizio talde bat balitz bezala ateratzea esijitzen ziotela. Uste dit txandala eramatea ere galerazten ziotela ikurriña ageri zelako. Han aurkezpen egunean euskaldun batzu txistuak jo zizkiguten eta egia erran horrek min haundia eman zigukeen, guretzako nahiko mingarria baita euskaldunak izanik Euskalerriaren izenean parte hartu ezin izatea. Bertze modalitateetan baduk posibilitaterik mundialetara ez joan nahi izanez gero profesinaletara pasatu edo zerbait egiteko. Baina trinketean helburu bakarra mun-dialetara joatea duk, hemen ez baitago bertze konpetiziorik. Zoritxarrez gauzak horrela zeudek eta hori aldatzea ez ziok pilotari bakar batzuen eskuetan.



CORREOS Y TELEGRAFOS

TELEGRAMA

PREAMBULO

ZCZC PRL006 31812

MADRID PRESIDENCIA GOBIERNO 39/5A 5 2100

SEÑOR DON OSCAR CHOPERENA
CASA BARRACHONDO
31798 YANCI

S.D.S

EN NOMBRE DEL PRESIDENTE Y DEL VICEPRESIDENTE DEL GOBIERNO LE ENVIO LA MAS CORDIAL FELICITACION QUE RUEGO HAGA EXTENSIVA A SU COMPAÑERO POR LA MEDALLA DE BRONCE EN MANO PAREJAS TRINQUETE EN EL CAMPEONATO DEL MUNDO DE PELOTA

ROBERTO DORADO
DIRECTOR DEL GABINETE DE LA PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

COL 31790

Hiru aste pasatu ondoren, zein da Cubarekiko zuen inpresioa?

Jendea izugarri alaia eta sinpatikoa duk, beti prest ziok hitzegin eta laguntzeko. Nik uste dit alde horretatik hamar bat eman behar zaiola. Bertzalde, hango bizimodua hemengoa baino apalagoa duk, badizkite behar frango. Jendeak duen iritzien aldetik, nik uste gauza bat nabarmen dela. Jende adintuak eta iraultza egin zutenak ados zeudek hango sistemarekin eta gazteak berriz, gauza gehiago nahi dik, gure janzkera ikusita inbiditan egoten dituk, kanpora atera nahian zabiltzak...

Dena den pena merezi duela uste dit hura ezagutzeak.

Aintzina begira, zein dira zure asmoak?

Asmoa trinketean jokatzen segitzea duk baina prestatzeko era piska bat aldatu beharko diagu. Azken urteotan prestakuntza fisikoa aunitz landu diagu baino trinketean gutti jokatuz, hegoaldean trinketelaririk ez bait dago. Beharbada Iparraldeko jendearekin gehiago jokatzen saiatu beharko genike. Gainera, orain Barcelonako Olinpiadak direla eta ADO - 92 programaren barrenean sartuak gaudek eta esperantzak badizkiagu Olinpiadetan jokatzeko.

Pilotaz ez ezik bertze gaietaz ere hitzegin zitekeen Oskarrekin, bertzeak bertze kultur munduan ere ezaguna baita Bortzirietan baina hori bertze aldi batetarako utzi beharko dugu.

PATXI LARRETXEA

Leitzetik, "Aurrera" !

Aurrera dut izena
Aurrera kultur - kirol elkarte
Leitzen jaio nintzen
auskalo duela zenbat urte,
Leitzen bizi naiz, eta biziko,
Leitzarra hil arte

Elkarte honen autobiografi llaburra, egoitza berriaren inauguraketa ospatzen delata (1990. XII. 23)

Nere bizia kontatzea eskatu didate, kontatu, kantatu, ni sortu ninduten gizonemakume hoien ohoretan, gaurkoentzat kilikagarri, biharko nere seme-alaben oroigarri.

Ni sortu ninduten gizon - emakumeen ohoretan

Ez dakit noiz jaio naizen. Lehen pausuak ez ditut batere gogoan. 1927. urtean ere ba omen nintzela diote. Baliteke. Ez dut uste. Badakizu, haurtzaroa mitifikatu egiten dugu pixko bat beti.

Nik uste gerrondokoa naizela, 1941. edo 1942. urtekoa.

Dantzan aritua naiz, musika jotzen, teatro pittin bat ere, iñauteritan jo - ta - fuego, eta pestazale amorratua (leitzarra izaki!). Baina gaurkoz nere kirol arloa gogoraztea eskatu didate.

Futboleko historikoak

Txiki txikitandik hasi nintzen futbolean, "Kakazelaian". Lekunberri, Arruia, Irurtzun, Berastegi, Elduaiendarrek... errespeto haundia zidaten. Ordukoz.

Baina serio hasi, federatuta, 1983.ean hasi ginen, Sarrio - ren terrenoetan futbol zelai berri bat eginaz auzolanean. "Lanbardo" dotorea, gaur egun herri askorentzat enbidigarria. 6.200.000 pezeta kostatua da (ordukoak!).

Galdetu bestela Iñaki Salbarrediri, edo Carlos Sagastibeltzari,...

1984 / 85 denboraldian "Regional" bigarrenetik abiatu ginen. Hasi baginan hasi, hirugarren gelditu ginen, eta urte hartako "Copa de Federacion" ospetsua irabazi, alajaina.

600 ikusle bildu ziren Lanbardon finala ikustera. Harrapazak!.

Hurrengo denboraldian 54 partidu egin genituen galdu gabe, eta goiko ekipoa eta jubenilak igo egin

ziren. Garai ederrak izan ziren haiek.

Geroztik euri asko egin du.

Baina gaur egun ere bagabiltza. Bi ekipo ari zaizkit futbolean herrian. Bata lehenengo erregional mailan dabil, eta berriki 500 gol sartu ditu nere izenean (Abenduaren 6an, Vidal - ek sartu zuen gola Etxarri Aranatzen). Bigarrena jubenilen mailan ari zait, jokalari berrien harrobi. Guztira, 36 leitzar dabiltza nere atorra jantzita.

Pilotazale ere

Nola ez, ba, leitzarra izanik. Pilotazaleak ziren ni sortu nindutenek ere, eta oso harro nago hortaz. Akordatzen ahal zarete "Mañu" Retegiren garaietaz?

Bi aldiz izan naiz Herri arteko txapelketan edo Inter - Pueblosen txapeldun (Bi aldiz, edo behin?) Berdin da.

Nere besoetan haziak eta ikasiak dira Migeliko Zestau, eta Bengoetxea anaiak, Migeliko Zabaleta, Iparra, Koxton,...

Gaur egun mottel antxa nabil pilotan.

Badakizue, gerriak gogor eta eskuak beratz. Hala ere, segitzen diot pilotari, ttarra ttarra, bagabiltza, kimu berri haundirik ageri ez bada ere.



Eta korrikalari ere

Donostiako I. Krossaren arrakasta ikusita, herrian bertan ere Kross herrikoi bat antolatzea erabaki genuen. "Pituk" erakutsi zigun hortan lanean. 1979.ko Leitzeko lenengo Kross hartan 700 laisterkalari aritu ziren. Kriston exitoa! Geroztik, hamaika urtez antolatu izan dut. Galdetu, galdetu horren inguruko pasadizoak.

Etorkizunerako Asmoak, itxaropena

Egoitza berri eder honekin, indarrak ere berritu ditut, pizkor sentitzen naiz, sasoian.

Dagoenari ongi eutsiko diogulako itxaropen osoa dut. Baina eutsi bakarra ez. Hedatzen joan behar gara. Herri kirola eskoletara eraman nahi dugu (zer ba!, ez ahal da Aurrerako lehendakari - ordea Nafarroako Herriko Kirolen lehendakaria?).

Eta mendian eta eskaladan gogor hasi behar dugu. Eta gainera kirola eginarazi, sartu, mugitu herria: saskibaloia, futbito...

(Barkatu hainbat izen, hainbat pasadizo, mila gauza, tintontzian gelditu zaizkidalako, leku eskasiarengatik).

ANTTON ERKIZIA

Kirol oharrak

• Abenduak 23an Elizondon :

XIII. Baztandarren Biltzarra Laisterketa Herrikoia (haur mailan Baztan Bidasoako txapelketa izanen da).

• Abenduaren 29an:

Kirol aktibitateendako dirulaguntzak eskatzeko epea bukatzen da.

Hamabostaldiko jokaldiak

Jokaldirik hoberena

Baztan eta Bortzirietako Sokatirako neska taldea.
Herri kirola gizonez gain ere neskak lotsik gabe eta inor baino hobekiago ari daitezkela Labriteko jaialdian erakusteagatik. Biba zuek!!

Jokaldirik txarrena

Elurretan ehizan ari diren eskopeteroak. Ehizan dabiltzala eta, TTIPI - TTAPAko atera hurbildu zaigu txori izitu bat aldizkari honetan ondoko hau jartzeko eskatuz. *"Nahiko lan badugula zuek etorri gabe elurra ari duelarik bizirik jarraitzeko"*.

Bihotzeko infartoaren zergatiak

Arteria koronario batetan tapoia sortzen duen arrazoirik ugariena (infartoaren eragilea, beraz) ateroskleroSisa edo arterietako paretetan gantza edo urinaren pilaketa da; urin hau, gehien bat, animali jatorrikoa da (garaunak, giltzurrunak, gibela, haragiaren gantza, etabar...), arraultzak, gurina, itsaski edo mariskoa eta enbutidoak, batez ere.

Gainera, badaude infartoak sortzen dituzten bertze faktore batzuk ere:

• **Tabakoa**: Erretzeaz uzten denean, infartoa izateko aukera, %50a jeisten da.

• **Tentsioa**: Tentsioa, gehienezko 16tik eta gutieneko 9tik pasatzen denean, infartoa izateko arriskua haunditu egiten da.

• **Kolesterola**: Hau 250 mg. baino gehiago izanez gero, urinaren pilaketa sortzen du arteria koronarioetan.

Kolesterola da haseran aipatu ditugun jakietan dagoen gantza mota garrantzitsuena.

• **Diabetesa**: Diabetikoak gehiago sofritzen dute infartoa.

• **Loditasuna**: Lodiak normalean, urina eta tentsioaren igoera izaten dutelako.

• **Ariketa fisikoa**: Ariketa fisiko konstanteak infartotik gordetzen du.

Orokorrean, infarto arriskua gehitzen da erasokorrak edo agresiboak diren pertsonetan, lo gutti egin eta bizi nahasia duten pertsonetan.

Hurrengo artikuluan, gaixotasun hau aldez aurretik zaintzeko moduetaz arituko gara.

BENEDICTO AGIRRE
Medikua

GAIA
OSASUN-DENDA
BELARRAK-DIETETIKA
EDERGAI NATURALAK
Gabon jaiak badatoz denontzat goxo ote? Diabetikoa bazara, zatoz Baditut turroi eta goxoki... loteriaz sarituak. Paketeak eginen dira... Opari moduan opari politak ditut denon zorionerako.
Bittiria 6
Tfnoa: 637410
LESAKA
Besta alaiak igaro

MEKANOTERAPIA ZENTROA
LUR APAL
BIZKARRA - ARTRITISA - ZAINAK - STRESA
Plaza Zaharra 7, Tfnoa: 63 70 11 LESAKA

• Liburuetan azken nobedadeak
• Eskola eta bulego materialea
• Artisau lanak
• Jostailu didaktikoak
• Musika
• Argazki materialea
• Margotzeko materialea
OSKORRI LIBURUDENDA
Zure bisitak poztuko gaitu
Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE

Astrologia

Horoskoporik ez, eskerrik asko

Jakina da egunkari eta aldizkaritan azaltzen diren horoskopo horiek ez direla gauza serioak. Ezinezkoa da mundu guztiko jendea hamabi multzotan banatu eta bakoitzaren egoera edo gertaerak lau hitzetan erratea. Gure burua zeinu batekin identifikatzera bultzatzen gaitu eta hori ez da soil horrela, pertsona, aunitzez gauza konplexuagoa da. Egiazko Astrologiari ez diote mesede haundirik egiten.

Horoskopoaren atal hau ez da egunkari bakar batean ere astrologoek izenpetua. Eskerrak batzuk bederen denborapasako sekzioan sartzen dutela. Pentsatzen dut horretan ere arrazoi komertzialak agintzen dutela. Izarren esana dela eta afera honi beti etekina atera egin zaio. Bertzela horra ondorengo istorioa.

Louis XI.a eta astrologoa

Louis XI.ak omen zuen bere astrologoa, garai hartan ohi zen bezala. Erregea ez zegoen batere gustora berekin, bere aurresanak sobera ilunak eta zentzugabeak bait ziren. Gainera astrologoak ez zuen igerri hasi berria zen gerra hura zetorrela. Beraz erregeak astrologoa hiltzeko erabakia hartu zuen. Egun batean, erresumako jaunekin jauregian bilduta zegoelarik, astrologoa dei erazi zuen, estualdian paratu, ondoren bere asmoa burutzeko. Erregeak irria ezin gordez, honela galde egin zion:

- Aizu, ba ahal dakizu noiz hilko zaren?

Astrologoa berehala ohartu zen zer zetorkion eta saiatu zen urduritasunik ez agertzen. Astia hartuz, honela erantzun zuen:

-... Noiz hilko naizen? Ba, egun zehatza ezin dizut erran... Erraten ahal dudan gauza bakarra da zu baino hiru egun lehenago hilko naizela...

Erregea harritua eta zalantzapean gelditu zen, ondoren astrologoari erretiratzeko baimena eman zion eta ez zion deus egin, ongi zaitu baizik.

FERMIN ALTZUGUREN

Guzi hauen zerbitzura gaude

koxka

KOXKA NAVARRA, S.A.

ZERBITZU TEKNIKOA

BERAN: 63 08 98 Tfnoan.
IRUÑEAN: 26 64 11 Tfnoan.

✔ DENDA
✔ SUPERMERKATU
✔ IZOZTEGI
✔ HARATEGI
✔ ARRAINDEGI
✔ GOZODENDA

MIKEL LABOA

Abenduaren 22an
Leitzako zineman
gaueko 10,30etan

MERKATU TTIKIA

Etxebizitzak

•**Berako Legia karrikan** pisu bat alkilatzen dut. Tfnoa: 630217.

•**Lesakan lokal bat** transpasatzen da Arretxea karrikan (Gaia). Tfnoa. 637410

•**Doneztebe** inguruan, 3.200m² duen borda bat salgai. 1.200.000. Tfnoa: 450054.

•**Baserri bat** bere eremuarekin erosiko nuke bertan bizitzeko. Bere egoerak ez du ajolik. Tfnoa: (943) 429378.

Lana

•**Neska batek edozein lan** eginen luke; etxeko lanak balira, orduka. Monika. Tfnoa.:63 73 72

•**Delineazio industriala** ikasi duen 22 urteko neska batek, lan eginen luke bulego batetan. Tfnoa: 450054

•**Klinika-auxiliar** bat naiz eta lan egin nahi dut. Tfnoa: 450054

•**Administrari bat lan** egiteko prest; 7 urte terdiko bulego-esperientzia. Tfnoa.: 943-51 38 95

•**Andre batek edozein lan** eginen luke Doneztеben eta goizez, igandetan ezik. Dei 45 07 70 Tfnora.

Salerosketak

•**Olentzerorako maskarak** salgai. Kartoizkoak, eskuz eginak. Jabier. Tfnoa: 637170

• **Salamandra bat** merkea eta ona behar dugu. Baduzue deitu 592116 tfnora. Eskerrik asko.

•**6.000 teila** saldu nahi ditut, bakoitza 15 pezetatan. Sei urte dituzte eta Oñatikoak dira. 450054.

•**Hiru euskal-arrazako** ardi zakur, hilabetekoak, salduko nituzke. Nahi dituenak dei dezala 504492 Tfnora.

•**Esne tanke** bat, Japy markakoa 150 litrokoa saltzen da. Tfnoa. 450465. Begoña - Elgorriaga.

•**Vespa TX200**, ia-ia berria den motoa, NA-Z, 3.000Km, saltzeko daukat prezio onean. Tfnoa: 450115 Doneztebe. Alejandroz galdetu.

•**Akordeoi bat salgai** Estrella markakoa. Gorri kolorekoa, tekladuna eta 96 baju dituena. 450499 tfnoa.

•**Bazka egosteko pazina** erosiko nuke. Tfnoa. 592043.

•**Bigarren eskuko aspiradora** erosi nahi dugu. Tfnoa: 45 15 55

Denetarik

•**Ekipoak alokatzen dira** Udalentzat, bertsolarientzat, elkarteentzat, mitinetarako eta abar. Laia musika dendara deitzea bertzerik ez duzu 63 10 59.

•**Beran, negutegiak** jartzeko terrenoa behar dut. Metroko 700 pzta. artio ordainduko nuke. Tfnoa: 450054.

Harremanak

• **Almandozko Yolandarentzat.** Irrifarra ez ezazu galdu egundaino bere lagun hurbilean ibiltzen denain partetik. Eguberri zorionak eta urte berri on. Isa.

• **Asuncion eta Elena** barka iezadazue, benetan oso laguna naiz zuekin, pensa ezazue ongi. "Libra"

•**Leitzeko Buldain eta Arri:** oso mutil zoragarriak zarete eta zuekin hitzegin nahi genuke. Horregatik egon zaitezte abenduaren 31an Herriko Plazan gaueko ordu bietan. Azaldu mesedez! Zuen jarraitzaileak.

• **Andres Elizaintzinentzat.** Iruritako mutil politenari, musu haundi bat eta zure lagun Pellori goraintziak neska misterotsu batzuren partez. Ikusi arte.

• **Mutil batek**, 26-34 urteko neska bat ezagutu nahi luke, berekin ezkontzeko intentzioarekin edo... familia osatzekoarekin, nahiago baldin baduzu. Tfnoa: 63 11 88.

• **Ezkurrako Pello Zestauri**: asko maite zaituen Kontxitaren partez eskuminak. Larunbatean Bordatxon itxoinen zaitu. Ez falta. Musu bat.

• **Berako Mireiarentzat.** Zutaz eroturik nago eta noizbait Iruritako musikan ikusiko bagara ea enrollatzen garen. Muxu haundi bat aurpei politortan. Ez moskeatu. Agur.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: .....

.....

.....

.....

.....

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK .....

HELBIDEA .....

HERRIA .....

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

DENBORAPASA

Puska Zurgin tresnak		●		●		Asiako lurraldea
		Ixilik!		Oinarrizko edari		
Injekzio Hari, nuen						
				Zakur Bokala		
● Seguru	●	Lehen bokala Italiako telebista		(Fem.) Teresa Bigarren bokala		
		Ukatzeko Bat		Hektarea Musika nota		
Ipar. Orain Beta			Modua ●			Aluminioa
		Emakume izena Zero				
Infusio mota Gipuzkoako ibaia		Ale landare ... denean, dirudienez			Alkoholen bukaera Jaurtikia	
		Iodoa Momentu	Bromoa Ditek			Errana
Minutuan hirurogei Anginak					Bokala Ez argi	
Lorearen kontso-nanteak Trebe	●					
		Gipuzkoako herria Röntgen				
Bokala	Adi!				Nafarroako ibil-gailuetan	

● Eguberri kanta ezagunak

ALMACENES ETXANIZ, S.A.

Lesakako
Iturria anaiak

Irunen, zure bainurako behar dituzun osagarri guziak: griferiak, manparak, mobleak, gres eta zeramikak

Juan Arana, 3 - Tfnoa: (943) 61 17 67

IRUN

ZORIONAK ETA URTEBERRI ON!!

AMAIUR

sukalde eta bainu altzariak

Vegasa®

Rosa Seminario 13
Tfnoa.: (948) 45 04 00
DONEZTEBE